



2024SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2024/10/30

UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

BILERA ZK.: 2024/11

EGUNA: 2024/10/30

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:40

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoa.

BERTARATUAK:

Alazne Txurruka Allika, alkatea.

EAJ-PNV udal taldea:

Asier Urain Buenetxea.

Monica de Prado Paniagua.

Jon Riaño Ojanguren.

Anton Garay Berezibar.

Ainhoa Urbieta Egaña.

EH Bildu udal taldea:

Gilen Garcia Boyra. (Telematikoki)

Itziar Irizar Beristain.

Antxoka Elorza Altuna.

Oihana Irusta Lazkano.

Aritz Larrañaga Unanue. (Telematikoki)

Edurne Aristi Careaga.

Orain Deba udal taldea:

Isidro Aristi Oruezabal.

Idazkaria: Jose Luis Salaberri Iñarra.

ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

Gai zerrendako gaiak aztertzen hasi baino lehen, alkateak proposatu zuen «Azaroaren 25eko adierazpena, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta» adierazpen instituzionala gaurko bileraren gai zerrendan sartzea urgentziatzko puntu gisa. Gai hau urgentziaz sartzeko arrazoia zela adierazpenaren behin betiko testua gaurko bilerarako deialdia bidali ondoren helarazi zutela, eta Osoko Bilkuraren hurrengo ohiko bilera azaroaren 28rako dagoela aurreikusita, hau da, emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko egunaren ondoren.

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen gaia osoko bilkura honetan aztertzea.

1.- Aurreko bilkurari dagokion akta onartzea, hala badagokio.

Udalbatzari aurkeztu zitzaion, onar zezan, 2024ko irailaren 26an eginiko osoko bilkuraren ohiko bileraren akta.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen zerbait esateko aktaren harira, inork ez zuen ezer adierazi, eta Udalbatzak, aho batez, onartu zuen 2024ko irailaren 26an egindako osoko bilkuraren bileraren akta.

2.- Alkatetzaren dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen ea inork zerbait esateko ote duen Alkatetza dekretuen harira.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

3.- Vialine enpresak kudeatutako 2024ko trafiko isunei buruzko Alkatetza dekretuen kontrola.

Alkateak galdetu zuen galderak edo iradokizunak ote ziren gai honen harira.

Ez ziren egon galderarik edo iradokizunik, eta Udalbatzak jakinaren gainean geratu zen.

4.- Onartzea, hala badagokio, Debako Udaleko 3.kreditu aldaketa.

Kontuhartzaitzak prestatutako Debako Udaleko 3/2024 kreditu aldaketa aurkeztu zen, guztira, 432.669,00 eurokoa, honako partidei eragiten diona:

GASTUAK:		EBILITAKO BALIABIDEAK:	
Partida	Zenbatekoa	Partida	Zenbatekoa
Luzaro eskolako eraikinaren eraispena	277.407,00	Altxortegiko soberakina	432.669,00
Transmisio ekipoa	11.780,00		
Gureak. Pauso berriak programa	4.300,00		
Informatika ekipoa	32.000,00		
Jaiak	36.870,00		
Jubilatuen etxearen dinamizazioa	8.200,00		
Hondartza. Maxpe barandila	11.290,00		
Hondartza. Isurketa zerbitzua	9.500,00		
Ingecom Sistemas SL. Kamarak	19.322,00		
Eraikinen konponketa eta mantentze lanak	22.000,00		
GUZTIRA	432.669,00€	GUZTIRA	432.669,00€



2024SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2024/10/30

Antolakuntza Batzordeak, 2024ko urriaren 21ean egindako ohiko bileran, kreditu aldaketa onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki zuen:

Lehena.- Hasierako onespina ematea Debako Udaleko 3/2024 kreditu aldaketari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena.- Behin betiko onetsizat jotzea Debako Udaleko 3/2024 kreditu aldaketa jendaurreko epealdian erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du kreditu aldaketa.

5.- Onartzea, hala badagokio, 2025erako ordenantza fiskalak.

Alkateak gaia aurkeztu zuen, Antolakuntza Batzordean ere azaldu zela gaia. Udal gobernua egiten zuen proposamena %5eko igoera zela orohar, eta zaborren tasaren igoera, berria, %8,5ekoa. Bazekitela inguruko udalerritako baino igoera altuago zela, baina Debako Udalaren egoera ekonomikoa bultzatuta, ematen diren zerbitzuen kalitateari eutsi nahi bada, hartu beharreko erabakia izan zela.

Itziar Irizarrek testu hau irakurri zuen:

«2025eko ordenantza fiskalei buruz udal gobernua egindako proposamenari dagokionez, batetik, ados gaude hondakinen tasa %8,5 igotzearekin. Orain arte Mankomunitateak aurreikusten duen aurrekontu proposamenaren arabera igoera aplikatu izan da eta aurten ere proposamen bera egin da arlo honetan. Beraz, tasa horren igoerarekin ados gaude; nahiz eta, Mankomunitateko arduradunekin izan genuen bileran aipatu genuen bezala, herritarrekin eta Mankomunitateko teknikariek batera lanketa sakona egiteko beharra dagoen, hondakinen sailkapena behar bezala egin eta errefusa gutxiago sortzeko, horrek eragiten baitu igoerarik nabarmenena.

Gainontzeko zerga eta tasei dagokienez, %5eko igoera orokorra proposatu du udal gobernua. Proposamen hau gehiegizkoa iruditzen zaigu, eta hala adierazi genien EAJ-ri eta Orain Deba-ri pasa den asteko bileran.

Gainera, %5a zergetan bai, baina zenbait tasetan %20ko, %25eko, %50eko edota %100eko igoerak proposatu dituzte:

- TAOari dagokionez, adibidez, gune batzuetan %25-50ko igoera, bertakoen txartela 5€tik 10€ra (%100eko igoera).*
- Hilerrietako tasak %5a gorantz biribilduta eta kiroldetakoak eta toldoenak %5a beherantz biribilduta, Itziar frontoiko tasetan %80ko igoera (6€tik 10€ra), hondartzako kabinetakoak %25-33 artean, uda kirolekoak %12,5, ...*

Beraz, udal gobernua %5eko igoera orokorra proposatzen duela esatea ez zaigu oso gardena eta zintzoa iruditzen, zergak, orokorrean, %5eko igoera planteatzen da, baina,

zenbait tasetan igoera proposamena askoz ere handiagoa da.

Aurreko astean egindako bileran EH Bilduren udal taldeak bi proposamen zehatz egin zizkien udal gobernuko taldeei: batetik, %3,6ko igoera orokorra (KPI-a (%2,6) + %1), eta etxebizitza hutsen IBlaren errenergua %75etik %100era igotzea. Modu horretan, diru sarreretan igoera orokorraren bi proposamenen artean (%3,6a eta %5a) dagoen diferentzia, 35.000-40.000€ inguru, konpentsatuta geratuko litzateke. Eta egokiagoa iruditzen zaigu etxe hutsak alokairura bultzatu ditzaken neurri bat ezartzea, herritar guztiei eragingo dien horrelako igoera nabarmena aplikatzea baino.

Gauzak horrela, eta gure proposamenik jaso ez dela ikusita, 2025eko ordenantza fiskalen puntu honetan gure bozka ezekoa izango da.»

Alkateak, testu hau irakurriz erantzun zion:

«Tasen igoera ezinbesteko beharra da gobernu taldearentzat, aldameneko udalerrietako igoera tasa eta zergei dagokionez, guk gaur hemen eztabaidatzen duguna baina apur bat baxuagoa dela, aztertu dugu inguruko herrietan zenbateko igoera proposatu den ordenantza fiskaletan, eta % 1,5etik %4ko artean kokatzen dira gehienak. Guk, berriz, %5eko igoera proposatzen dugu, Debako finantza-errealitateak, guztiz baldintzatu baitu gure proposamena, tasak nahi baino apur bat gehiago igo behar izan ditugu. Ez da gure nahia, nahiago genuke %3,6 igotzea, edo Mutriku bezala, % 1,5 igotzearekin nahikoa izango bagenu, baina, hori ezinbestekoan egin beharrekoa da udal-kutxen egoera zein den ikusita, eta igoera hori udal-kutxen egoerarekin lotuta dago. Zentzu horretan, gure proposamena azken urteetan, eta hori ez du esan nahi azken lau urtetan bakarrik, azken urtetan izandako udal politiken ondorioa da. Hori adierazten dugunean, esan bezala, ez diogu agintaldi jakin bati soilik erreferentzia egiten, zuen agintaldiri, baizik eta, azken urtetan gertatu denari, baina, ezin dugu ahaztu azken lau urteetan pertsonal gastua handitu dela eta hori ere ordaindu beharra dagoela.

Beste alde batetik, inflazioak denoi eragin digu, eta Udal honi ere eragin dio, nabarmen garestitu ditu Udalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak, eta kontua ez da handitzea, eta aurrekontua handituz errentagarritasuna lortzea, eskaintzen ditugun zerbitzuen kalitatea mantendu eta bermatzea baizik. Udalaren egungo egoerak gauzak beste modu batera egiteko aukera emango baligu edota gaur hemen proposatzen duguna baino igoera baxuagoa aplikatzeko aukera izango bagenu, zalantzarik gabe, egingo genuke, baina gure proposamenak udal zerbitzuen etorkizuna bermatzeko hartutako erabaki arduratsu bati erantzuten do. Berrit diot, kontua ez da etekina lortzea, daukagunari eustea eta horren kalitatea bermatzea baizik. Beraz, gobernu talde hau erabaki zailak baina arduratsuak hartzen ari da, beti helburu bakar batekin: debarrei eskaintzen dizkiegun zerbitzuen kalitateari eustea eta Debarentzat eta debarrantzat etorkizun bat bermatzea.

Aipatu duzue, baita ere, bi proposamen egin dizkiozuela gobernu taldera, eta hala da: batetik, %5eko igoera beharrean, KPIren %2,5eko igoerari puntu bat gehitzea, eta %3,5eko igotzea, eta honekin batera, etxebizitza hutsei ezartzen zaien errenergua %75etik %100ra igotzea. Gogora nahi dizuet, udalerrri honetan etxebizitza hutsei %75eko errenergua aplikatzen zaiela. Horrek esan nahi du etxebizitza batean inor ez badago enpadronatuta, etxe horri %75eko errenergua eskatzen ziola, eta gogorarazi nahi dut ere, Deban, eta udalerrri bakarra izango da, errenergua hori benetan eta serio aplikatzen dela. Beste udalerrri batzuetan errenergua ezarrita dute, baina, gero, kontsumoak hartzen dira kontuan, eta ez da errenergua aplikatzen, Deban, berriz, ez dira kontsumoak kontuan hartzen, eta



2024SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2024/10/30

errekargua oso-osorik aplikatzen da. Egia da, proposatutako bi horiek eginez gero, 35.000 edo 40.000 euro aterako genituzkeela, %3.5tik %5eko diferentzia hori arinduko zela. Dakizuen bezala, momentu honetan etxebizitza planaren lanketarekin gabiltza, eta horren puntuetako bat da herriko etxebizitza hutsen egoera aztertzea, Hortaz, ez zaigu iruditzen momentua denik horrelako gaia planteatzeko, iruditzen zaigulako etxebizitza planaren lanketa bukatu ondoren, behar bada, neurri hori hartzeko moduan egon gaitzezkeela, eta ez momentu honetan. Beraz, 2025ean ezagutuko dugunez etxebizitza planaren nondik norakoak, agian, datorren urtean onartuko diren ordenantza fiskaletan hori aplikatu daiteke, baina, momentu honetan ez dugu ikusten. Beraz, udal gobernu taldeak %5eko igoeraren proposamenarekin jarraitzen dugu.»

Itziar Irizarrek azaldu zuen ados zeudela altxortegiaren egoera nolakoa denarekin, azken bost urtetan ez dela batere ona izan. Egia dela hainbat urtetan tasak izoztu egin direla, adibidez, pandemiaren urtean, baina, 2022an, 2023ko ordenantzak onartzeko orduan, Udalbatza osatzen zuten hiru alderdiek adostu zutela, gutxienez, %1a igotzea, denontzako hobea zelako igoera progresibo bat izatea, kolpeka izatea baino. Horretan ados zeudela, baina, juxtuago iruditzen zaiela bigarren etxebizitza dutenei errekargua handitzea herritar orori %5eko igoera handi hori aplikatzea baino. Horrela, euren proposamenik aintzat hartu ez zirenez, aurkako botoa emango zutela.

Alkateak erantzun zion, pazientzia eta lankidetzeta eskatzen dutela,, etxebizitza hutsen arazoari eta baliabideen erabilera eraginkorrari aurre egiteko egokiak diren erabakiak hartzeko, etxebizitza plan honetan elkarrekin lana eginez.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aldeko zazpi boto eta kontrako sei botoekin, hau erabaki zuen:

Lehena.- Hasierako onespina ematea ondoko ordenantza fiskal hauen aldaketari:

- Zerbitzuak eman eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.
- Hiriz izaerako lursailen balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza.
- Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zergaren kuotak finkatzeko elementuak erregulatzen dituen ordenantza.
- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak finkatzeko elementuak erregulatzen dituen ordenantza.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoari jarraituz.

Hirugarrena.- Behin betiko onetsizat jotzea aipatutako ordenantzen aldaketa jendaurreko epeldian erreklamaziorik aurkezten ez bada. Bestela, Udalbatzak ebatziko ditu erreklamazioak

eta, hala badagokio, behin betiko onartuko du ordenantzen aldaketa.

6.- Onartzea, hala badagokio, 2024ko enplegu planaren kudeaketa Elgoibarko Udalaren esku uzteko hitzarmena.

Alkateak azalpenak eman zituen Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko udalen arteko kudeaketa-gomendioaren hitzarmenari buruz, enplegua eta toki-garapena sustatzeko proiektuak gauzatzeko Debabarreneko lurralde eremuan Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako proiektuen kudeaketa Elgoibarko Udalaren esku uzteko.

Halaber azaldu zuen zein izan den eskualdean jasotako diru kopurua eta Debako Udalak plan horren harira eginiko kontratazioak.

Lurraldetasun Batzordeak urriaren 23an eginiko bileran hitzarmena onartzearen aldeko irizpena eman zuen.

Bozketa egin ondoren, Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Debabarreneko lurralde-eremuan diruz lagundutako enplegua sustatzeko eta tokiko garapenerako proiektuak gauzatzeko Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko udalen arteko kudeaketa-gomendioko hitzarmena, horien kudeaketa Elgoibarko Udalaren esku uzteko.

7.- Azaroak 25eko adierazpen instituzionala

Alkateak adierazpena irakurri zuen:

«AZAROAREN 25EKO ADIERAZPENA, EMAKUMEEN 'KONTRAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Azaroaren 252 emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela eta Udalok gaitzespen irmoa adierazten dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurrean, eta beste erakunde batzuekin, mugimendu feministarekin eta gizarte osoarekin modu koordinatuan lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Aurten, arreta jarri nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren diskurtso ukatzaileetan, ultraeskuinak aurrera egiteko Europako eta munduko testuinguru batek bultzatuta jaiotzen baitira. Emakumeen eskubideetan izandako aurrerapenen aurreko erreakzio horrek, emakumeen eta haien inguruaren aurkako indarkeria ezereztu egiten du, eta oraindik haratago doa, lege-aldaketen biktimak gizonak direlako ustea sustatuz, berdintasunari eta indarkeria matxistari dagokienez.

Nahiz eta gero eta sentsibilizazio eta kontzientzia kolektibo handiagoa egon emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartearen alde, — bai esparru legalean; eta politikoan, bai sozialean-, gaur egungo joera neomachista hasten ari da. Manosfera deitu zaion eremuan, mezu misogino eta berdintasunaren aurkako mezu ugari daude. Ondorioz, "indarkeriak ez duela generorik", "asmakizun ideologikoa" dela eta berdintasun-politikak urrunegi iritsi direla bezalako mezuak jasotzen ari gara.

Diskurtso horien aurrean, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren datuek gogorarazten digute gure gizarteak egiturazko arazo bat duela, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunean oinarritzen dena. Negazionismoa arazo globala da, eta Nazio Batuek ere alarma piztu dute berdintasunaren aurkako-mehatxu gero eta handiagoez eta misoginiaren normalizazioaz ohartarazteko, batik bat, hedabide digitaletan.

Hori guztia kontuan hartuta, Debako Udalean emakumeen aurkako indarkeria ezereztu



2024SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2024/10/30

nahi duen edozein diskurtsoren aurka agertzen gara, eta honako konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Gure herrian, euste-horma kolektiboa aktibatzea, emakumeen aurkako indarkeria ukatzen edo/eta ezerezten duen edozein erreakzio matxistaren aurrean, tokiko eragile guztiekin lan eginez, mezu ukatzaileak indargabetzeko eta tokiko bizitzan barneratzeko eta halakoak sortuz: partaidetza-mahaiak, zurrumurru misoginoei eta mezu ukatzaileei aurre egiteko tokiko sareak, komunikazio bateratuak, erantzun publiko eta kolektiboko protokoloak ...*
- Gazteei zuzendutako sentsibilizazio-neurriak hartzea, batez ere mutilei zuzendutakoak, egunero jasotzen dituzten mezu misoginoak, emakumeen aurkako mezu bortitzak eta berdintasunaren aurkakoak desaktibatzeko, batik bat, bitarteko digitalen bidez.*
- Gune formal eta informaletan, eskola-komunitateari zuzendutako hezkuntza- eta prestakuntza-prozesuak indartzea, indarkeria matxistaren aurrean mezu eta jarrera ukatzaile horiei aurre egiteko eta desaktibatzeko.*
- Hezkuntza Sailarekin hitz egiteko bideak erabiltzea, eskola-curriculumean jarrera ukatzaileetan eta jarrera matxisten normalizazioan esku-hartzea indartzeko.*
- Berdinsareatik, eta beste sareetatik ere, udalerriek sarean ekiteko aukera indartzea, negazionismoari aktiboki aurre egiteko eta udalerriek indarkeria matxistaren aurka kolektiboki borrokatzeko egiten duten apustua berresteko.*
- Mugimendu Feministak urte osoan zehar indarkeria matxistaren aurrean egiten duen lanketa balioan jartzeko.*

Era berean, Emakumeen Kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna dela eta, Deban talde feministak antolatuko duen ekitaldian parte hartzera animatu nahi ditugu herritarrak, emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztien aurrean gaitzespena modu aktiboan adierazteko.»

Udalbatzak, aho batez, onartu zuen Azaroaren 25eko adierazpena, emakumeen 'kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna dela-eta

8.- Eskari eta galderak.

Alkateak galdetu zuen ea inork ba ote zuen eskaera edo galderarik.

8.1 Isidro Aristik testu hau irakurri zuen

«Tras la polémica creada con la nueva lista de precios del bar de Arbil, quiero hacer unas aclaraciones relacionadas con este tema:

Situación de Arbil

Con el inicio de la legislatura, nos encontramos con el elkartea de personas mayores, en cuadro con una presidenta, vicepresidenta y la secretaria , tras haber terminado su ciclo los colaboradores que habían venido ayudando hasta ese momento.

Como primera medida, nos planteamos la necesidad de atraer nuevos colaboradores, fortaleciendo el equipo directivo, lo que se consiguió con la constitución de la nueva junta directiva con 12 miembros y la presentación en sociedad, ahora hace un año en el local del bar, siendo la primera reivindicación la apertura del mismo, tras permanecer este cerrado durante varios años.

En este tiempo, se ha conseguido poner en marcha un amplio programa de actividades con clases de dantza, talleres de corte y costura, charlas ,excursiones de senderismo, visitas culturales , viajes al extranjero, etc., esto ha hecho que el número de socios actual haya aumentado de forma considerable y que éste sea de otro perfil, mayor de sesenta años , con otras necesidades de socialización y hemos hecho del hogar del jubilado un club social para mayores pensando en hacer actividades intergeneracionales para todos.

Las bases para la apertura del bar limitan el acceso a su arrendamiento a personas que no tengan el B2 y la lista de precios anterior está muy desfasada, esto hace muy difícil encontrar un arrendatario por lo que se ha llevado un proceso negociador entre este y la junta de Arbil, supervisado desde servicios sociales para hacer viable la apertura del bar.

Se ha conseguido una nueva lista de precios aprobada por la junta directiva de Arbil y apoyada por el equipo de gobierno con el objetivo anhelado de la apertura del-bar y hacer así realidad esta aspiración del colectivo de mayores.

Desde el equipo de gobierno municipal, queremos mostrar nuestro más sincero reconocimiento por el trabajo que estáis haciendo por el desarrollo físico, el desarrollo cognitivo y sobre todo el desarrollo emocional de los mayores, haciendo frente a la soledad uno de los principales problemas de este colectivo.»

8.2.- María Ostolazak, Arbil elkarteko idazkariak, hitza eskatu zuen eta, alkateak hitza eman ondoren, adierazi zuen zinegotzi batek adierazi zuela ez zegoela ados jubilatuen tabernarako prezioekin, prezio horiek Udalak onartu behar dituelako. Taberna ustiatzeko 2019an argitaratu ziren pleguetan jartzen zuela prezioak esleipendunak proposatu eta Udalak onartu eta argitaratukoak izango zirela, eta aurten argitaratutako pleguetan jartzen zuela Udalak onartuko zituela aplikatu beharreko gehieneko prezioak. Horiek horrela, Arbil elkartekoek, jubilatuentzako beste taberna batzuetan aplikatzen zituzten prezioak aztertu ondoren, Debako taberna bideragarria izan zedin, proposatu zuela prezio berdinak izatea denontzako, bereizketa egin gabe jubilatatu daudenen eta ez daudenen artean. Plegutan jasotzen den bezala, eurek proposatu egin zituztela prezioak, Udalak onar zitzaizkien.

Itziar Irizarrek galdetu zion euren kide horrek zer forotan egin ote zituen adierazpen horiek, eta María Ostolazak erantzun zion elkarteko kide bati modu pertsonalean egindako adierazpena izan zela.

Itziar Irizarrek gehitu zuen konfusio bat egon dela, zeran ea gauza bat dela proposamen bat jasotzea, eta beste bat non hartzen den erabakia. Gauza ez dela prezioekin ados ez egotea, baizik eta gaia no eztabaidatzen den eta erabakia non hartzen den.

María Ostolazak azaldu zuen inor aurkeztu ez zenean, prezioak eskatu zizkiela herriko hiru tabernariei eta batezbestekoa kalkulatu zuela, gero esleipenduna irten zenean, egindako lana aprobetxatuz, lagundu ziola bere proposamena prestatzen, eta aurkeztu zen proposamena esleipendunarena zela.

Itziar Irizarrek azaldu zuen hori guztia oso ondo dagoela, baina ez duela uste hori horrela izan zenik, euren taldekide batek ez zuela esan ez zegoela ados prezioekin, baizik eta erabakia non



2024SPLE0011
11.bilera: OHIKOA 2024/10/30

hartu behar zen izan zela desadostasuna sortu zuela, prozedurarekin ez zegoela ados, eta ez prezioekin edo proposamena nor egin behar zuenarekin.

Isidro Aristik azaldu zuen gai hori batzordean aurkeztu zela et EH Bildu taldekide batek oso kontrari azaldu zela, eta gero batzordetik kanpo ere, kontrako adierazpenak egin zituela, eta Itziar Irizarrek erantzun zion bere taldekideak ez zuela prezioen kontra adierazpenik egin, baizik eta erabilitako prozeduraren kontra.

Itziar Irizarrek erantzun zion bere taldekideak prozeduraren aurka azaldu zela, eta ez prezioen aurka.

Alkateak adierazi zuen kontuan hartu behar zela, onartutako prezioak urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahalko direla, eta taberna lehenago zabaltzen bada lehenengo prezioekin zabaldu beharko dela. Udalak ematen duen zerbitzu bat dela, eta prezioak aldatzeko araudiak ezarritako prozedura jarraitu behar dela.

Bilera amaitu aurretik, Alkateak gogorarazi zuen hurrengo osoko bilkuraren ohiko bilera azaroaren 28an izango dela.

Besterik ez zegoenez, 19:40tan alkateak amaitutzat eman zuen Osoko Bilkuraren bilera.

Alazne Txurruka Allika
Alkatea



Jose Luis Salaberri Iñarra
Idazkaria

